



Bizkaia, sozialki arduratsua den inbertsioaren joera berrien erreferentea

- **Bizkaiko Diputatu Nagusi Unai Rementeriak inauguratuko du sozialki arduratsua den inbertsioari buruzko nazioarteko goi bileraren hirugarren edizioa, ekainaren 19an, Bizkaiko hiriburuan**
- **Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen du, Deusto Business School eta Fineco-Kutxabank Banka Pribatuaren laguntzarekin, inbertsio arduratsuen alorreko 20 nazioarteko aditu baino gehiago bilduko dituen topaketa hau**
- **Nazioarteko adituek eztabaidagai izango dituzte enpresa kotizatuetako ESG inbertsioa, euren Informazio Ez-finantzarioaren Egoera-orria argitaratzeko enpresei egiten zaien eskaria, edo zergatik hartu behar diren kontuan ESG irizpideak arriskuak saihesteko eta balio erantsi handiagoa sortzeko**
- **2017an, Estatuan 185.000 milioi euro baino gehiago kudeatu ziren ESG irizpideekin, bi urte lehenago baino % 10 gehiago, Spainsif-en zifren arabera**

Bilbo, 2019ko ekainaren 3a. Bizkaia inbertsio arduratsuen joera berrien erreferentea da, eta horrelako inbertsioen munduko hiriburu bihurtuko da berriro, Biscay ESG Global Summitaren hirugarren edizioarekin. Bizkaiko Foru Aldundiak, Deusto Business Schoolek eta Fineco-Kutxabank Banka Pribatuak antolatuta, topaketak inbertsio arduratsuen alorreko 20 nazioarteko aditu baino gehiago bilduko ditu.

Bizkaiko Diputatu Nagusi Unai Rementeriak Batzarra inauguratuko du, finantza-ekosistema arduratsu bat lurraldean garatzeko zereginaren gakoak aztertuz.



Halaber, zitan Trantsizio Ekologikorako Ministro Teresa Riberak parte hartuko du, eta ekitaldia itxiko duen hizlaria Pedro Azpiazu izango da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomiako sailburua.

Adituek zenbait gai aztertuko dituzte, horien artean Informazio ez-finantzarioari eskatzen zaion gero eta gardentasun handiagoa; horri begira, Iberdrola, Aernnova, CIE Automotive eta beste enpresa batzuetako EGE eta Betearazpen Zuzendariak horren inplikazioak aztertuko dituzte. Gainera, Pablo Bascones PwCko Jasangarritasun, EGE eta Klima-aldaketako Bazkide arduradunak Informazio Ez-finantzarioaren Legea indarrean sartu osteko lehen sei hilabeteetako balantzea egingo du.

Halaber, goi bilerak ESG inbertitzaileek enpresa kotizatuei begira dituzten kezka nagusiak ere jorratuko ditu, GALP edo Enagásen eskutik.

Azpimarratzekoa da Enpresa Erantzukizunaren Eliza Zentroko (ICCR) Presidente Séamus Finn apaizaren parte-hartzea; honek aztertuko ditu, bere esperientziatik, zer arrazoi bultzatzen dituzten inbertitzaile arduratsuak EGS irizpideez fidatzera inbertsio-aukera onak identifikatzerakoan. Horretarako, akziodunen indarrak batzeak enpresetan eta gizartean inpaktu positiboa sortu duten kasu praktikoak azalduko ditu.

Gainera, mundu akademikotik parte-hartzaile hauek izango ditugu: Ane Tamayo, London School of Economicseko kontabilitate katedraduna, eta Oğuzhan Karakaş, Cambridge Judge Business Schooleko Finantzen unibertsitate-gradu irakaslea. Karakaşek komunitate inbertitzailearen koordinazio formak jorratuko ditu, enpresen ingurumen- eta gizarte-politikak aldatzea xedetzat hartuta; aztertuko du, halaber, noraino den lagungarria lankidetzak hori akziodunentzako balioa sortzeko.

Bestalde, finantzen mundutik parte-hartzaile hauek etorriko dira: Arturo Miranda, JP Morganeko Zuzendari Gerentea; Ignacio Gutiérrez Oarrantia,



Citigroup Global Markets Ltd.ren Espainiako sukurtsalaren Zuzendari Nagusia; eta Javier Hernani, BME Kontseilari Delegatua (CEO).

Era horretan, Biscay Esg Global Summit ezinbesteko zita gisa finkatzen da. Gainera, Bizkaia kokatzen du finantza jasangarrien alorreko nazioarteko erreferente gisa, eta lurraldeak finantza-plaza modua betidanik izan duen protagonismoa berresten du.

ESG irizpideekin inbertitzea

Gaur egun, inbertsio errentagarriak ez ezik, inbertsioen komunitateak inbertsio arduratsuak eskatzen jarraitzen du, gero eta neurri handiagoan, eta horrek eskatzen du irizpide jasangarriak txertatzea inbertitzeko erabakiak hartzeko prozesuetan. Testuinguru horretan, Biscay ESG Global Summit topagune egokia izango da ESG (ingurumena, gizartea eta gobernantza, haren ingelesezko siglen arabera) irizpideez eztabaidatzeko, sozialki arduratsua den inbertsioaren alorrean.

Azpimarratzekoa da Europa dela inbertsio jasangarrien munduaren liderra, konputu globalaren ia erdiarekin –konputu global hori ia 30 bilioi dolar dira-. Kontinente zaharrak osoko inbertsioaren % 46 du, eta hazten jarraitzea espero du. Beste alde batetik, Estatuari dagokionez, ingurumena, arlo soziala eta gobernu ona kontuan hartzen dituzten irizpideez kudeatutako funtsen ondarea 185.000 euro izan ziren 2017an, hau da, bi urte lehenago baino % 10 gehiago, Spainsifen zifren arabera.

Jokaleku horretan, Nazio Batuen Erakundearen inbertsio arduratsuaren printzipioak –PRI deritzanak- izan dira munduko katalizatzaile nagusia, sozialki arduratsua den inbertsioaren irizpideak hartzeari dagokionez. Sortu zirenez geroztik, PRIek 2.000 sinatzaile baino gehiago bildu dituzte, eta 80 bilioi dolarretik gorako aktibo-bolumena dute; gainera, bolumen hori etengabe hazten ari da.



Biscay ESG Global Summitaren Egitaraua

Data: Asteazkena, 2019ko ekainak 19

Lekua: Euskalduna Jauregia, Bilbo

8:45 – 9:15 Erregistroa.

9:15 – 9:25 **“Bilbo Bizkaia Hub Finantzarioa”**: ESG ekosistema batentzako sostengua.

Unai Rementeria. Bizkaiko Ahaldun Nagusia.

9:25 – 10:15 **Teresa Ribera**. Trantsizio Ekologikorako Ministroa. Espainiako Gobernua.

Finantza Sektorea

11:00 – 11:30 **Ane Tamayo**. London School of Economicseko Kontabilitate Katedraduna

11:30 – 12:00 Atsedenaldea - Kafea

12:00 – 12:45 **Nola heldu informazio ez-finantzarioaren gardentasunaren inguruan dagoen behar gero eta handiagoari.**

Informazio ez-finantzarioaren Legea onartu eta 6 hilabetera ikasitako lezioak.

Pablo Bascones. PwCko bazkidea, Jasangarritasun, EGE eta Klima-aldaketako arduraduna.

Eztabaida-taldea.

Roberto Fernández Albendea. Iberdrola Taldeko EGE Zuzendaria.

Erika Molinillo. Aernnovako Betearazpen Arduraduna.

Susana Molinuevo. EGE eta Betearazpen Zuzendaria CIE Automotiven.

Pablo Bascones. PwCko bazkidea, Jasangarritasun, EGE eta Klima-aldaketako arduraduna.

Moderatzailea: **Mari Luz Castilla**. PwCko Ahokulari Seniorra.

12:45 – 13:15 **Trantsizio energetikoa eta aldaketa marjinalaren garrantzia**

Mark Lewis. Jasangarritasun-azterlanen arduradun orokorra, BNP Paribas Asset Management (BNP Paribasen aktiboen kudeaketa).

13:15 – 14:00 **Oğuzhan Karakaş**. Cambridge Judge Business Schooleko Finantzen Graduko Irakasle Seniorra.



14:00 - 14:30 Aholkularitza

14:30 – 15:45 Bazkaria Euskalduna Jauregian.

15:45 – 16:30 **ESG inbertitzaileen kezka nagusiak kotizatueta.**

Otelo Ruivo. Inbertsio-harremanen Arduraduna, GALP.

José Miguel Tudela. Jasangarritasun Zuzendaria, Enagás

Moderatzailea: **Sara Herrando.** Analisi zuzendariordea, Norbolsa S.V.S.A.

16:30 – 17:15 **Zergatik fidatzen dira inbertitzaile arduratsuak ESG irizpidez inbertsio onak identifikatzerakoan**

Seamus Finn Apaiza. Consistent Investing programaren arduraduna. Oblate Investment Pastoral Trust.

Moderatzailea: **Carlota García-Mañas.** Ingalaterrako Elizaren Enpresekiko Elkarrizketaren Buruaren Ondokoa).

17:15 – 18:00 **Arturo Miranda.** Zuzendari Gerentea, JPMorgan.

Ignacio Gutiérrez Orrantia. Inbertsio-bankaren Espainiako Presidentea, Citigroup.

Javier Hernani. CEO, BME.

Ane Tamayo. London School of Economics.

18:00 – 18:30 **Finantza alternatiboak: nola izan jasangarri eta inklusiboa.**

Pedro Azpiazu, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomiako Sailburua.

www.biscayesgsummit.eus

VK Comunicación

Informazio gehiagorako:

Patricia Loredó Sierra

944 01 53 06 / 629 74 90 47

patricia@vkcomunicacion.com